

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko martxoa • 277. alea



Euskalzaletasunaren indarra



EPOCA-GORO

San Juan, 5. Elbar - 943 700 216 - www.epocasukaldeak.com
ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



Berziklatzeko ohiturarik bai?



Aritz Arizaga Egoitz Unamuno

Kaixo Egoitz!

Azkenaldixan sarri entzuten dok jentia hondakinen inguruan berbetan. Batzuk esaten dabenen jakittun dittuk, beste batzuk ideia askorik gabe jarduten juek... Gipuzkoa osuan zabaldua daguan polemikia dok atez atekuana edo bosgarren edukiontzixana. Egunkari, irrati zein telebistan be egun askotan azaltzen dok zeozer.

Ni ez nok hontan entendidua, baina herritar moduan zer pentsatu emoten jostak. Neure etxian aspaldixotik birziklatzen dok organikua. Kontenedoretxo bat jaukagu ortuan eta han konposta sortzen juagu. Gero konpost hori aprobeztatzeko moduan daganian, ortuko lurrandako edo etxeko lorendako erabiltzen juagu. Hori baino ongarri hoberik gutxi egongo dittuk, eta bide batez etxetik urtetzen dan hondakin kopurua be gutxittu egitten dok.

**“Kontenedoretxo bat
jaukagu ortuan eta
han konposta sortzen juagu”**

Herriko familixa danak hori egittia posible ez danez, ondo pentsatzen jatak herrixan bosgarren edukiontzi hori ipintzia. Horretarako herritarrek inplikatu egin beharko lirakezik eta ohiturak aldatu. Jendia ohittuta jagok papela, plastikua eta kristala apartatu eta beste dana edukiontzi berdera botatzen. Baina horrek apartatzera ohittu zan moduan ohittuko dok oin organikua be apartatzera.

Bosgarren edukiontzixari pega bat be ikusten jotsat. Hor batzen dabenez organikotik sortzen dabenez konpostakin zer eitten juek? Ez juat entzun ezebe horren inguruan. Ez jakixat herriko parke, lora eta lorategixetan erabiliko dabenez edo herritarren artian banatzeko asmua daken...

Dana dala, ondo pentsatzen jatak birziklatzian aldeko ekimenak sortzia. Guk danok ohiturak aldatu beharko jittuagu, ingurua zeoze zainduko bajuagu behintzat!

Ondo izan!!

Aupa Aritz,

Zaborren kontuak emon jok bai nahikua zer esan Gipuzkuan, eta emon deixela, herritarrok gai horrek daukan garrantzixaz konturatzeko balixo bajok, gaitz erdi. Urte asko pasatu jittuagu zaborren kontuari begiratu barik, eta badok ordua basuria kontenedorerera bota eta gero gertatzen danaren barri jakiteko. Zoritxarrez, beste gai garrantzitsu askok ingertatzen dan moduan, komunikabidiak alderdixen kontsigna eta estrategia politikuen atzetik erabiltzen gaittuek, ardixen moduan. Horregaittik dok garrantzitsua herritarrok geure kaxetara informaziñua topatzia eta geure iritzi propiua izatia, gauzak bihar dan moduan egitteko bide bakarra dok eta.

Gure etxeko jan hondarrak nora doiazan bajakixat: babak oiluendako, hazurrak txakurrendako, patata azalak ardixendako eta sobratzen dana... konpostagailura. Badittuk pare bat urte etxian konposta egitten hasi ginala. Edarra dok tarteka konpostagailura juan eta buelta emotia, ikustia zela bihurtzen dan ongarri. Gurian horixe bihurtu dok ohittura.

**“Pentsatzen juat
birziklatzia danok daukagun
betebeharra dala”**

Ohiturak aldatzia posible dok, aldatzeko gogua bihar dok horretarako. Eta gogua zela pizten dok? Ba batzueri fakturako hobarixak piztuko jotsek berziklatzeko gogua eta beste batzueri hurrengo belaunaldixeri mundu hobea bat lagatzeko arduriak. Ni bigarren horrek motibatzen naok gehixuago, eta horregaittik pentsatzen juat birziklatzia danok daukagun betebeharra dala. Ni ez najaok ez berziklatzeko eskubidiaren alde. Baina danak ez juagu berdin pentsatzen, eta borondatia daukagunok bakarrik ekin beharko jotsagu. Nik nere partia egingo juat, gustora asko.

Gutunak

Joxean Iñurrieta

Mbaieren kutsua

Joan zen hilean ustekabeen joan zitzaigun Mbaie gazte senegaldarra. Kolore eta adin guztietako herritarren erantzun zabala hunkigarria izan zen zineko bilera hartan. Mbaieren irrifarreak, apaltasunak, umiltasunak eta jarrera irekiak denok irabazi gaitu. Eta ez soilik Soraluzen, Elgoibarren eta Bergaran ere antzekoa izan da.

Elkartasuneko ekimena harantzago eramateko proposamena luzatu nahi diot Udalari. Mbaieren izatea eta portaera ereduizat harturik, etorkin guztieri omenaldi eta ongi etorri zabala adierazteko irudi sinboliko bat, agian eskultura bat jartzea proposatu nahi diot, bere salmentako karro eta guzti. Eta non hobe, Zubi Nagusian baino, iturri gaineko Daviden orde, adibidez.

Herri Irratian 30 urtetan kazetari dabilen lagun batek esan zidenez, Gipuzkoako herririk integratzaileena omen da Soraluze.

Udal agintarieri ausardia eskatu nahi diet, ezaugarri hau erronkatzat hartu eta elkarbizitza hobetzeko pausoak eman ditzaten alderdi politikoen arteko eztabaida interesatuak gaituz. Nire ustez hori erakutsi digu lehenengo bilera hartan zinera batu zen espektro zabaleko jendetzak.

Soraluzeko
EAJ/PNV

2013ko aurrekontuak

2013ko aurrekontuak aho batez onartu ziren. Nahiz eta oposizioan egon, erantzunkizunez eta koherentziaz jokatu dugu eta laugarrengo urtez jarraian, egoera ekonomiko latz honetan, Soraluzek aurrekontuak izango ditu.

Berrikuntzen artean, kuantitatiboki nagusiena "aholkulariaren" partida izan da, konkretuki 21.780€koa. Ez dago beste partidarik hau gainditzen duenik. Argi geratzen delarik zein izan den Bilduren udal gobernuaren lehenasuna 2013ko aurrekontua egikartzeko orduan. Beraien interes partikularrak eta ez herriarenak.

Hau horrela izanda PSE-EE eta EAJ-PNVko udal taldeek amankomunean, zuzenketa partzial bat aurkeztu genuen, onartua izan zelarik.

Helburua aholkulariaren partida inbertsioetara zuzentzea izan da. Kiroldegiko gaina egokitzeko, eta herriko parkeetako haurrentzako jolasak konpondu eta berriak erosteko.

Aurrekontuen negoziaketan Bilduk izan duen jarrera salatzea nahi dugu. Ez dute akordioetara iristeko asmorik azaldu, oposizioaren kontrako bozka bilatu nahi izan dute, jarrera itxi bat mantenduz. Zorionez oposizioko alderdiek beraien asmoak zapuztu ditugu, aurrekontuak onartuz. Argi geratu da nork babestu dituen bere interes partidistak eta nortzuk herriaren eta herritarren interesak.

Maria Luisa
De la Fuente

Mila esker bihotzez

Azaroaren 4an oso gaixo eraman ninduten ospitalera, 6an hiltzorian nengoela nere etxeokak lur-jota utzi zituzten mendikuen hitzek eta zorionez egunetara indarrak izan nituen gaixotasun hain larriari aurre egiteko.

Ehundaka izen jaso dituzte etxeokak paper batean. Zuen izenak dira. Izugarria izan da zenbat pertsonak galdetu duzuen nigatik. Guzti honegatik hitz xume hauek eskeini nahi dizkizuet.

Mila esker hor egon zeraten guztioi, nere alabak, bilobak, ahizpa, semeak eta etxeokak babestu dituzuenoi eta eman diezuen maitasun guztiagatik. Hiltzorian nengoela egunero-egunero deitu eta galdetu duzuenoi, zuen laguntza eskeini eta eman duzuenoi, nere bilobak hain momentu gaitz eta gogorretan zaindu dituzuenoi. Mila esker bisitan etorri zaretenei eta lau hilabete pasata, gaur ere behin eta berriro nigatik galdetu, nigana hurbildu eta holako maitasun adierak ematen dituzuen guztioi, ospitaleko, Soraluzeko eta etxera etorritako mediku eta erizainei.

Mila esker Euskal Herriko txoko guztietatik, hegoaldetik eta iparraldetik noski, deitu nauten lagun maitagarri guztiei.

Mila esker zuen malkoengatik, hain lagun eta ezagunei. Nik ere maite zaituztet.

Bittartetik



Turismoa urrutira joan gabe

Aste Santuko oporrak bertan ditudugula eta (oporrak baldin badaukazue behintzat, nik tamalez ez) hona hemen zenbait gomendio opor hauek primeran pasatzeko:

- Agroturismoa: Non eta Karakateko inguru paregabian. Mendi irteerak, mountain-bike-a, ikuspegi ezin hobiak. Dena gastronomia eskaintza bikainakin, etxetik eramandako patata tortila eta sagardo botila.
- Enoturismoa: Soraluzeko "alde zaharrian" kokatuta, gozatu herriko taberna ezberdinek eskaintako ardo eskaintza oparuz eta pintxo goxuez. Bisitaldi gidatuak herriko edozein kuadrilakin kontaktatuz gero.
- Abenturazko turismoa: Aurretik aipatutako mountain-bike-a barne, orientazioa landu leike Marraskilo Tour-eko ibilbidea markarik bare eginaz. Ausartenentzat, patin parria hartu eta Karakateko herrira jaisten saiatu. (Galdu ezker edo ospitalian amaituz gero, mesedez, ez eskatu neri erantzunkizunik).

Ikusten dozuenez, bada zeregin ugari herritik urten gabe. Bestela be, Soraluze inguruan turismo eskaintza zabala dago: Getariako eta Zarautzeko Txakolindegixak, surf eta body board-a, canyoning-a La Lezen, txalupa bisita gidatuak Zumaiako Flys-cean eta milaka aukera gehixago. Aste Santu honetan gozatu Soraluzetik eta Euskal Herriko bazterrez!

Bide batez, zorionak Gaztetxeko "Jai Kontraartistikoa" ekimenen sortzaileei, benetan lan bikaina "dutxa azpiko saioak" bidixuan egindakua. Espero ekimena primeran urtetzia.

Eta animo pila eta besarkada haundi bat oporrez gozatu ezingo daben horientzat, hurrengo hilabetietan ama izango diran emakumientzat adibidez ;).

“Etxe-kaleratzearen prozesuan sartuta daude hiru soraluzetar”

Imanol Goikoetxea

Debabarrena Stop Kaleratzeak plataformako kidea



Imanol Goikoetxea eta Julio Urquiza Debabarrena Stop Kaleratzeak taldeko kideak.

Mendaron bizi den eibartar honek ondo baino hobeto ezagutzen du etxe-kaleratzeen problematika. Debabarrena Stop Kaleratzeak plataformako kidea da irailaz geroztik, eta udalekin eta banketxeekin izan beharreko harremanez arduratzen da.

Zela dago kontua Debabarrenean?

Langabezi-tasa oso altua da, adituek 1988. urtetik Gipuzkoan izan den altuena dela diote. Hipotekadunek zailtasun ekonomiko handiak dituzte hilero ordaindu behar duten nomina ordaintzeko eta asko dira bankuari ordaintzeko dirurik ez dutenak. Autonomoak, igeltseroak, Alfako langileak... tratatzen ditugu, eta kaltetuotako hiru dira soraluzetarrak. Susperraldi ekonomikoa gertatu ezean, etxe-kaleratzeen problematika izugarri haziko da.

Zein izaten da prozesua etxe-kaleratzea gauzatu aurretik?

Hiru nomina ordaindu gabe izatea nahikoa da bankuak burofax bitartez prozesua hasi dela jakinarazteko. Atzerapenek zorra are eta handiagoa bilakatzen dute. Hipotekaduna 30.000 euroko kostua duen prozesu judizial batean sartzen da, galtzea tokatzen zaio, eta gainera bankuak bere etxea

enkantean jartzen du. Inork erosi ezean bankua etxearen jabe egiten da baina kaltetua zorraren %40a ordaintzera behartua dago. Bizi osorako zorra.

“Etxe-kaleratzeen problematika izugarri haziko da”

“Soraluzeko Udalak, kaleratuak izan diren edo arriskuan dauden herritarrei laguntzeko konpromisoa hartu du”

Boluntarioak Eibarren batzen gara eguaztenetan, 19:00etan, Portaleako 3. Solairuan

Zer egiten duzue zuek?

Aholkularitza zerbitzua eskainiz ekiten diogu beti kasuak lantzeari. Hipotekan sinatutako agiri guztiak errepasatu, banketxeekin tratua egiten

saiatu, udalekin harremanetan jarri... presio bideak aztertzen ditugu. Gure ustez, kaltetuek beraien nominei aurre egin ezin badiete, bankua etxearekin geratu daiteke baina zorra kitatu behar du. Familiak bere etxean bizitzeko eskubide guztia behar du, alokairu sozial bat ordaintzearen truke.

Zein da udalaren egitekoa?

Marinaledan izan ezik, udal denek etxe-bizitzaren burbuilatik etekinak atera dituzte eta zuzenean ez bada ere, egungo arazo larriaren erantzule dira. Soraluzeko Udalak, mozio bitartez, kaleratuak izan diren edo arriskuan dauden herritarrei laguntzeko konpromisoa hartu du. Banketxeekin tratua egitea adibidez, beraiei dagokie.

Zailtasunak dituztenendako gomen-diorik?

Lotsak alde batera laga eta berandu izan baino lehen plataformara hurbildu daitezela. Oso garrantzitsua da prozesua hasierako fasean lantzea. Boluntarioak Eibarren batzen gara eguaztenetan, 19:00etan, Portaleako 3. Solairuan. Harremanetan jartzeko telefonoa 627 934 675 da, eta emaila: stopdesahuciosbajodeba@gmail.com.



Loli Nieves García
Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es



Komertzioetarako web orriak disenatzen ditugu. Kalitatezkoak eta merkeak.

355.000 euroko saldo positiboa udalak

2012ko ekitaldia 355.572,69 euroko saldo positiboarekin bukatu duela jakinarazi du udalak. Horietatik 58.125,33 euro "konprometitutako gastuak" dira, 2013an ordaintzekoak. Beste 74.031,36 euro Aldundiaren funtsera itzultzeko erabiliko dira, eta 58.204 euroko poltsa gordeko da kupoaren desadostasunak eragindako balizko ordainketa bati aurre egiteko. Horrela, 165.212 eurotako soberakina izango du udalak. Diru hori hainbat egitasmori aurre egiteko erabiliko da: Plan Orokorra jarri, eta Kalebarren-Santa Ana-Gila Zubiko baldosen egoera, Kiroldegiko gimnasioa, Futbol Zelaiko harmailetak aterpea eta parkeetako jolastokiak konpontzeko. Udal gobernua adierazi duenez, azken bi urteotan egindako "gestio

ekonomiko egokiaren ondorio dira datuok": 2.871.481,89 eurotako zorra %29,6an murriztu eta aurrezteko ahalmena handituta, "proiektu berriei ekiteko moduan izatea lortu da".

Kaleratzeak eta hileta zibilak

Martxoaren 6an egindako udalbatzarrean Kaleratzeak Stop plataformak aurkeztutako mozioa onartu zen eta udalak kaleratzeak bideratzen jarraitzen duten bankuekin harremanak mozteko konpromisoa hartu zuen. Horrekin batera, herrian hileta zibilak arautzeko ordenantza ere onartu zuen. Udalak oinarritzko baliabide teknikoak eta beharrezko baimena eskainiko dio hileta zibila antolatu nahi duen herritarrari.

Gaztetxokoa apirilaren 13an zabalduko da

Hilabeteetan udalak eta Kukumixio Aisialdi Taldeak elkarlanean gauzaturiko Gaztetxoko proiektuak apirilaren 13an, zapatua, arratsaldeko 17:00etan zabalduko ditu ateak. "Bua Txabal" antzezlan emanaldia antolatu dute inaugurazio ekitaldirako. Gaztetxokoa zehazki, DBHko 12-14 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta ardura-dunek "gune aske, inklusibo eta euskalduna" sortzea dute helburu. Herriko gazteak bertan parte hartzeri animatu nahi ditu Pil-pileanek.

Itxaropenakoak Iratxera

Apirilaren 5ean goizeko 8:15ean Estazio kaletik irten eta egunpasa joango dira Iratxera herriko jubilatutako. Ardandegira bisita, Comillas herrian mokadutxo egin eta Iratxen bazkaria eta dantzaldia izango dituzte gozagarri.

Ekintzaileentzat Ekingune Elkarteak aurkeztu dute

Enpresa sortu berriek izan ditzaketen beharrianakasetzera dator Ekingune Elkarteak. Debabarreneko pertsona ekintzaileen artean kooperazioa eta elkarlana sustatzea du helburu; horretarako, harreman sareak, lankidetzak proiektuak edota ikastaroak antolatuta. Elkarteak Debabarrenean aritzen diren enpresek soilik hartu dezakete parte eta Jarduera Ekonomikoaren Erroldan, gehienez, 5 urteko antzintasuna izan behar dute. Bazkideztan interesa dutenek ekingune@ekingune.com helbidera idatz dezakete edo 943 208420 telefonora deitu. Informazio gehiago: www.ekingune.com

FotoNotizia



Parot Doktrina salatzen elkarretaratzea

Berrogeita hamarren bat herritarrek parte hartu zuten aurreko martitzenean Estrasburgoko epaia dela eta Herrirak antolatutako elkarretaratzean. Parot Doktrina aplikatuta duten euskal presoen egoera salatzen 72 aulki hutsez bete zuten Plaza Barrira. Estrasburgoko epaitegiak du orain Parot Doktrina aplikatzearen gaineko azken erabakia.





SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Bizimodu Duin Baten Aldeko batzarraren deialdia

Apirilaren 4an, iluntzeko 19:00etan gatzetxean batuko da berriz ere Sorraluzeko Bizimodu Duin Baten Aldeko batzarra. Aipatu bilerara egungo sistema ekonomiko, politiko edota sozialarekin ados ez dauden herritarrak gonbidatu nahi dituzte.

Martin Azkaratek jaso du gidabaimena euskaraz saria

Soraluzeko Udalak prestakuntza teorikorako matrikula bat zozketatu du iazko ikasturtean gidabaimeneko ikasketak eta azterketa teorikoa euskaraz egin zituztenen ikasleen artean. Guztira bi izan dira euskaraz ikastera animatu diren herritarrak eta Martin Azkarateri egokitu zaio aurtengo saria. Martinek 525,29 euroko txekia jaso zuen Alkatearen eskutik.



Aste Santuko ospakizunak

Soraluzeko Kristau Elkarateak Aste Santuko ospakizunen berri eman du.

Martxoak 24: Erramu Domeka, 12:15ean elizpean erramuen bedeinkapena, ondoren meza.

Martxoak 26: Adiskidetze Sakramentua, iluntzeko 20:00etan.

Martxoak 28: Eguen Santua, azken afa-riaren ospakizuna 18:00etan, eta Ordu Santua 21:00etan.

Martxoak 29: Ostiral Santua, gurutz-bidea goizeko 9:00etan (eguraldi onarekin Ezozira, eguraldi txarrekin elizan bertan). 17:00etan Jaunaren Nekealdia- ren Ospakizuna.

Martxoak 30: Pazko Gaubela gabeko 22:00etan.

Martxoak 31: Pazko Eguna, eguerdiko 12:15ean.

“Alkarrekin” etorkizuneko ildoak zehazteko prozesua

Zapatu goizean aurkeztu zuen udalak prozesua jendaurrean. Uztaiera bitarteangaratu kodaherrikoeragileekonomiko, sozial eta politikoei batera. “Aniztasunetik norabide bat adosteko ariketa” izango dela adierazi zuen alkateak aurkezpenean, eta zentzu horretan, aipagarria da, prozesua udaletxean ordezkariak duten alderdi politiko guztien babesarekin abiatu dela. Aurkezpenean izan ziren Debegesako eta Aldundiko ordezkariak ere.

Herriaren alderdi negatiboak eta positiboak

Prozesuaren garapenean inguruko azalpenak eman zituzten Jon Aldazabal eta Ainhoa Unamunok -prozesua dinamizatu duen MIK taldeko tenikariak-, eta horrekin batera, elkarrizketatu zituzten herritarrengandik eta Debegesarengandik eskuratutako datuekin osatutako diagnostikoaren berri eman zuten. Datu negatiboen artean; “biztanlegoaren zahartzea, langabeziaren gorakada” eta beste hainbat adierazle aipatu zituzten. Positi-

boen artean berriz; gizarte mugimendu aberatsa eta proiektatzen dugun “izaera alai eta umoretsua” nabarmendu ziren.

Hausnarketa saioak arloz arlo

Apirilean eta maiatzean arloz arloko hausnarketa saioak garatuko dituzte Alkarrekinen. Horretarako hainbat herritarri gonbidapen berezia egingo die udalak. Hala ere, edozeinek izango du hausnarketa saiotan parte hartzeko aukera.



Taldetan banatuta egin zen amaierako hausnarketa.

“Udako abentura” udalekuetan izen-ematea zabalik

Euskaratik eta euskaraz, uztaierako lau abentura berri proposatu dituzte Pil-pilean, Txatxilipurdi eta Jardun Euskara Elkarateek. Aurtengo asmoa da udalekuon bitartez autonomian, hezkidetzan edota naturaren zaintzan oinarritutako baloreak transmititzea. 9-12 urte bitarteko gazteek Zerainera joateko aukera izango dute; 12-14 urte bitartekoak Garaionera, Arrasateko gazteek Zingira-Orio udalekuetan izena emateko aukera ere izango dute eta 14-16 urte bitarteko gazteek Kosta ala Kosta udalekuak izango dituzte gozagarri. Udaleku guztiek 275 euroko prezioa dute eta izen-emate epea maiatzaren 10ra arte egongo

da zabalik. Informazio gehiago 943 75 13 04 (Pil-pilean). Eskaintza osoa: plaentxia.com



Maite Kintanilla, elkarteko ordezkaria aurkezpenean.

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Berziklatzeko ordua

Materia organikoa jasotzeko sistema martxan da dagoeneko. Guztira, 894 familiak eman dute izena, kopuru osoaren %57ak. Horrela, Soraluzek Debabarreneko izen-emate mailarik altuena lortu du, alde nabarmenarekin.

Mankomunitateak adierazi duenez, Soraluzen jasotako datuak espero baino altuagoak izan dira, bailarako batzbestekoa - %40a - baino 17 puntu altuagoak. Izan ere, Debabarrenean bosgarren edukiontzia ezartzea erabaki duten herriak lau dira: Ermua, Eibar, Elgoibar eta Soraluze -Mallabia, Mendaro, Deba eta Mutrikuk atez ateko sistema ezartzeko interesa erakutsi dute eta sistema horren bideragarritasuna ezagutze-ko azterketa eskatu diote mankomunitateari.

Oraindik ere zabalik dago izen-ematea

Eguenean jakitera emandako datuen arabera, Soraluze da Debabarrenean izen-emate mailarik altuena lortu duen udalerria. Hona hemen herrietako datuen arteko konparaketa: %57 Soraluze • %45 Elgoibar • %28 Eibar (Ermuko daturik ez)

*Iturria: Soraluzeko Udala.

Udalak jakinarazi du oraindik ere izena emateko aukera dagoela. Horretarako, udaletxeko harrerara edo udaltzaingora jo behar da. Horrekin batera, Artelatz etxez etxeko kitean banatutako poltsa biodegradagarriak amaitutakoan, berriak eskuratzeko udaletxeko harrera zerbitzura jo beharko dela jakinarazi du.



Herritar bat bosgarren edukiontzia erabiltzen.

DATUAK

Zein herritan dago 5. edukiontzia Gipuzkoan?

Zumaia, Zarautz, Eskoriatza eta Donostiako Amara auzoan.

Berziklatze tasa: %35-40

Zabor bilketa Debabarrenean?

Gaika %22

Sailkatu barik %78

Hondakinak nora doaz?

Organikoa eta sailkatu gabea:
Lapatx (Azpeitia)

Bidrioak, papera eta ontziak:
Vidrala (Bizkaia) eta Sasieta (Beasain)

Gipuzkoako berziklapen-helburuak (PIGRUG)

2016 %60

2020 %75

*Iturria: Mankomunitatea eta Soraluzeko Udala.

Ondo egitearen garrantzia

Mankomunitateak eta udal gobernua "ondo egitearen" garrantzia azpimarratu dute. Hain zuzen, Sorluzeko Udalbatzarak -aho batez- eskatu dio mankomunitateari gehien berziklatzen duen udalerriki gutxiago ordainduko lukeen sistema ezarri dezala. Horren harira, udal gobernua jakinarazi du, ez dela zerga igoerarik izango, besteak beste mankomunitateak kobratzen dion kopurua ere -352.479 euro urtean-, ez handitzea "loritu" duelako.

Berziklatzea saritzeko hobariak ezartzeko aukera aztergai da

Hobariak ezartzeko aukera

Udal gobernua "sorluzetarrek erakutsi duten jarrera" goraiatu du eta oraindik izena eman ez duten herritarrek animatu ditu: "guztion zeregina da ahalik eta gehien berziklatzea, errauskailuari atea itxi eta etorkizun osasuntsuagoari atea zabaltzeko". EAJ eta PSE-EEK ere herritarrek zoriondu dituzte, eta euren poza azaldu dute "bosgarren edukiontzia ezarri delako eta ez



Lapatxeko zabortegia. Aldundiak agindu du 2014an itxiko dutela.

atez atekoa". Bestalde, guztiak bat datoz berziklatzea saritzeko zerga-hobariak proposatzerakoan. Helburuak zehazterako orduan berriz, gobernua %60ko berziklatze-mailara iristea jo du helburutzat, eta EAJ eta PSE-EEK ez dute helburu zehatzik aipatu.

Auto-konpostaren bidea

Herritarrek zuzenean konposta egitea da udal gobernua eta mankomunitateak bul-

tzatu duten beste aukeretako bat. Otsailean egindako kanpainan, 12 herritarrek eman zuten izena (286 bailaran). Etorkizunean auto eta auzo-konposta bultzatuko dituzte. Horren harira, aipatzekoa da Gaztetxeak dagoeneko auzo-konposta sistema mar-txan duela.

Soraluzen Zero zabor

Hondakinen inguruko kezka bultzatu ditu Domentx eta Jone Zero Zabor taldea sortzera. "Herritar moduan arazoaren inguruan argi pixkat egitea dugu helburu: informazioa emanez, kontzientziak astinduz eta herrian bultzatu daitezkeen praktika onak lagunduz", azaldu digu Domentxek. Hain zuzen, "herriko gizarte eragileekin -dendariekin, ikastetxeekin, elkarte gastronomikoekin- berziklapenaren inguruan berba egitea" da euren buruari ezarri dioten lehenengo zereginetako bat.

"Bakoitzak apur bat eginda aldaketa handia eragingo genuke"

Euren ustez, ahalik eta gehien berziklatu behar da "zabortegietara ahalik eta zabor gutxien bideratzeko eta errausketa eragozteko. Ezin dugu imajinatu Sorluzen kaiok beteta egongo den zabortegi bat eta ez dugu nahi inon egoterik



Jone eta Domentx zubian ezarri dituzten informazio-taulen ondoan.

ere. Berdin errauskailuarekin." Bosgarren edukiontzia "aurrerapauso" iruditzen zaie, baina ahal den neurrian "herrian bertan konpostatzearren alde" daude. "Behin hasitakoan gustoa ematen du materia organikoa berziklatzeak,

badakizulako ondo egiten diharduzula. Gutako bakoitzak apur bat eginda aldaketa handia eragingo genuke", adierazi dute.

Martxoan zehar egindako kanpainaren ostean, herriko 894 familiak eman dute izena biohondakinak gaika batzeko sisteman. Hala ere, beste soraluzetar askok ez dute izenik eman. Udal gobernua, EAJk eta PSE-EEk, zergetan hobariak ezartzeko aukera aipatu dute sistema sustatzeko bide moduan.

Zer iruditzen zaizu biohondakinak berziklatzeko sistema? Eta zergetan hobariak ezartzea?



Roberto de la Rosa

Jendeak parte hartzen badu, oso ondo dago. Nik neuk oraindik ez dut izena eman. Ez dut astirik hartu informazioa irakurtzeko. Hobariena formula ona izan liteke izena eman ez dugunok erakartzeko.



Begoña Alberdi

Bosgarren edukiontzia jartzea oso ondo iruditu zait. Horrela aprobetxatu egingo da material hori konposta egiteko. Hobariena egiten da beste herri batzuetan dagoeneko eta balio dezake honako ere.



Marisa Tornos

Nik neuk ahal dudana beste berziklatzen dudanez, izena eman dut. Hobariena oso ondo iruditzen zait. Derrigortzea ez litzaidake ondo irudituko.



Igor Gomez

Zoragarri iruditzen zait. Aspalditik egon behar luke ezarrita. Europako leku askotan egiten da aspalditik. Hobariena bidea ondo egon liteke baina iruditzen zait zaila dela jakitea zeinek berziklatzen duen eta zeinek ez.

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ISKERRIK ASKO PLAZENTXISTERREI
GUGEN IZANDAKO KONFIDENTZAGATIKI

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOMANENKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRAK
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elaburu 3. behe, Soraluze

Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!

Kalebarren-22. behe,
Soraluze. Tel. 943 75 17 89

Kirol emaitzak

PELOTA

Gonzalez – Laskurain	22
Retegi Bi – Pascual	11
Gallastegi – Urkiri	13
Arrasateko bikotea	18
Fernandez – Tajuelo	7
Azkoitiko bikotea	22
Santamaria – Kortaberria	9
Urretsuko bikotea	22
Andreu – Aldape	22
Tolosako bikotea	15
Andreu – Aldape	22
Andueza – Iparragirre	0

FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Mutrikuarrak	4-0
Sailkapenean 7.na, 1.etik 11 puntura	
Sora (Erreg.) – Arizmendi	5-0
Sailkapenean 3.na, 1.etik 3 puntura	
Jubenilek deskantsua	
Sailkapenean 5.na, 1.etik 9 puntura	
Sora (Kad. Mut.) – Iksasberri	2-1
Sailkapenean 3.na, 1.etik 16 puntura	
Sora (Kad. Nesk.) – Aloña Mendi	0-5
Sailkapenean 7.na, 1.etik 13 puntura	
Sora (Inf. Mut.) – Antigua Luberrri	4-2
Sailkapenean 5.na, 1.etik 19 puntura	
Zumaiaiko – Sora (Inf. Nesk.)	1-1
Sailkapenean 3.na, 1.etik 5 puntura	

Agenda

PELOTA

Gaur, 19:00etan Aranen
Santamaria – Kortaberria
Urretxuko bikotea

Zapatua 23, 12:00etan Tolosan
Andreu – Aldape
Tolosako bikotea

Zapatua 23, 18:00etan Labriten (etb1)
Mendizabal III - Laskurain
Saralegi – Aretxabaleta

FUTBOLA

Zapatua 23, 15:30ean Azti Handin
Lazkao – Sora (Erreg. Pref.)

Domeka 24, 10:00etan Aita Marin
Zumaiaiko – Sora (Erreg.)

Zapatua 23, 18:00etan Iraetan
Zestoa – Sora (Jub.)

Domeka 24, 12:00etan San Migelen
Mutriku – Sora (Kad. Mut.)

Domeka 24, 12:00etan Ezozin
Sora (Kad. Nesk.) – Arizmendi

Zapatua 23, 10:00etan Mendibeltzen
Orioko – Sora (Inf. Mut.)

Zapatua 23, 10:00etan Ezozin
Sora (Inf. Nesk.) – Amaikak Bat

Irene Alvarez hirugarren Boulder Liga txapelketan

Iturria: Irene Alvarez

Urtarrilean ekin zion Alvarezek Boulder Liga Txapelketan Elite mailan lehiatzeari eta lau froga gainditu ostean, martxoaren 2an jokatuako finalean hirugarren sailkatu zen, Zuriñe Arrue eta Alba Lumbrerasen atzetik. Bizkarreko lesio baten ondorioz, datozen asteotan atsedean hartu beharko du eskalazaille soraluzetarrak baina sendatu bezain pronto azaroan jokatu den Euskal Herriko Boulder Liga prestatzen hasiko dela zehaztu du.



Alvarez (eskumatik bigarrena), txapelketan lehiatu duten gainontzeko parte hartzaileekin.

Zigor Esnaola lehen herritarra EHUko Donostiako lasterketan

Martxoaren 17an Udaberriko Lasterketa Donostiarrak UPV/EHU frogako seigarren ekinaldia jokatu zen. 1.470 atletek lortu zuten 10 kilometrotako froga amaitzea, tartean bost soraluzetarrek. Zigor Esnaola, mutiletan, eta Monica Rodriguez, nesketan, izan ziren herriko korrikalarien artean azka-

rrenak, 00:36:14 eta 00:52:43 segundotan sailkatuta.

Zigor Esnaola	00:36:14
David Rascon	00:37:31
Fer Rodriguez	00:41:57
Monica Rodriguez	00:52:43
Ainhoa Velazquez	00:53:12

Bederatzi soraluzetar Lilatoian

Iturria: Irati Iñurrieta

Martxoaren 3an ospatu zen Donostian Lilatoia lasterketaren 24. edizioa. Guztira hiru mila emakumetik gora aritu ziren bost kilometrotako ibilbidean zehar gizonen eta emakumeen arteko parekidetasunaren alde korrika, tartean, bederatzi soraluzetar. Herriko ordezkarien artean Bakarne Burunzak egin zituen lasterketako bost kilometroak azkarren, Jone Alberdi iritsi zen bere atzetik eta Irati Iñurrieta sailkatu zen hirugarren.



Lasterketan parte hartu zuten herritar batzuk



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Belarrak

Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



II. Kale Dantza Eguna ospatuko dute bihar

Kaleko txistularitza indartu eta plaza dantzak herrira zabaltzeko asmoak bultzatuta, II. Kale Dantza Eguna antolatuko dute biharko. Zitara, 20 txistulari inguru daude gonbidatuta eta Urratseko lagu-



nek, bere aldetik, fandango eta arin-arinaren erritmora girotuko dute jaia. Iazko ekinaldiaren ostetik, badira Musika Eskolan txistu klaseak jasotzera animatu diren ikasleak eta asmo berari helduta, txistuak daukan indarra herritarren artean zabaltzeko erabiliko dute biharko ospakizuna.

Egun osoko egitaraua

Kalejira giroan hasiko da eguna, goizeko 10:30ean Estaziñotik Mesedeetako Amaren egoitzara joango dira txistulariak. Bertan fandango eta arin-arina dantzatzeko dute Urratseko lagunek. Handik erdigunera bueltan, buruhaundiak ibiliko dira herrian eta Txuri-uridin elkartekoekin batera, salda eta txorizoa banatuko dituzte Plaza Zaharrean. Kaledantzaren atzetik bazkaria egingo dute Allegro Elkartearen eta eguna borobiltze aldera, 18:30etik aurrera dantza-poteoa egingo dute herriko kaleetan zehar.

Zilar eta brontzezko dominak Andoaingo Piano Jaialditik



Osoko fin aritu ziren herriko piano-jole gazteak otsailaren 23 eta 24a bitartean Andoaingo ospatu zen Piano Jaialdi ezagunean. Euskal Herri osoko mila ikasletik gora elkartu ziren bertan, tekladun instrumentua jotzeko dituzten abileziak neurtzeko. Soraluzeko Musika Eskolako hiru ikaslek hartu zuten parte jaialdian eta arrakastatsu itzuli ziren etxera, hirutik hiru domina eskuratuta: Iraultza Ostolaza (zilarra), Ignacio Arana (brontzea) eta Abigail Monserrate (brontzea). Zorionak hirurei!

Kultur agenda

Gaur, martxoak 22

JAI KONTRARTISTIKOA

22:00etatik aurrera, gaztetxean

Ant: Gaztetxea

HELDUENTZAKO ANTZERKIA

"Ellas bailan solas". Pikor Teatro antzerki taldea. 22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Parekidetasun Batzordea

Martxoak 23, zapatua

TXURI-URDINEN X. FESTA

11:00etatik aurrera Plaza Zaharrean

Ant: Soraluzeko Txuri-uridinak

KALE-DANTZA EGUNA

10:30etik aurrera, herrigunetik

Ant: Txistulariak eta dantzariak

Martxoak 25, astelehena

HITZALDIA

"Bertsolaritza, begirada feminista bat".

Uxue Alberdiren eskutik

18:30ean, Zinean.

Ant: Pil-pilean

LABUR METRAILAK eta EZTABAIDA

"Herria antolatuta bitzita aurrera ateratzeko". 19:00etan, Gaztetxean.

Ant: Gaztetxea

Martxoak 26, martitzena

HITZALDIA

Auzolan ekimenaren eskutik

19:00etan, Gaztetxean.

Ant: Gaztetxea

Apirilak 5, barixakua

HIP-HOP KONTZERTUA

"El fuego y la palabra"

22:00etan, gaztetxean

Ant: Gaztetxea

Apirilak 10, eguaztena

HITZALDIA

"Nork garbituko ditu ontziak gaur gauean?"

Matxalen Legarretaren eskutik. 18:30ean, Zinean.

Ant: Gaztetxea

Apirilak 13, zapatua

ANTZERKIA

"Abuelita de Batman". Banarte

Taldearen eskutik. 20:30ean, Zinean.

Ant: Udaleko Kultura Batzordea



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoaren frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

CRISTIAN CORTES
PEDRO MOREIRA

soralur

Igeltseritza eta pintura lanak

Tel. 616864464 / 667362957
soralurc.b@hotmail.com

Zorion agurrak



Gloria Guenaga
Martxuan 2xan 87 urte!
Zorionak ama eta amama!!! Gure indarra zara, muxu potolo bat.



Janire Muñoz
Martxuan 8xan 5 urte!
Zorionak maitia!! Muxu pila bat etxekuen partez!!



Jon Urdangarin
Martxuan 9xan 12 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat etxeko danon partez!



Ibai Rodriguez
Martxuan 11n 9 urte
Zorionak txapeldun! Muxu haundi bat etxeko denon partetik!



Zorionak Amaia eta Ainhoa!
Otsailan 24an eta martxoaren 5ian, 5 eta 9 urte egin ditzuzelako! Muxu haundi bat etxekuen partez.



Euken Oliveri
Martxuan 7xan 8 urte!
Zorionak polittori eta muxu haundi bat familixian partetik!



Julen González
Martxuan 3an 10 urte bete ditzuzelako, zorionak eta muxu haundi bat etxekuen partez!



Inma Plata eta Jose Ayora
Martxuan 12xan eta 29xan urtiak bete ditzuzelako... Zorionak! pila bat maitte zaittuegu!! Milaka txokolazteko patxo, Ivan eta Martan partez!



Oihan Larrañaga eta Unai Calles
Martxuan 4an eta otsailan 7xan urtiak bete ditzuzelako! Mila kilo zorion eta patxo zaparrada, etxekuen partez!



Amets Alberdi
Apirilán 12xan 4 urte!
Txokomarrubizko muxutxuak etxekuen partez, bereziki Iargin partez!



Oier Cid
Martxuan 23an, 3 urte!
Zorionak mutil haundi!
Muxu haundi bat familixa eta etxekuen partez!



Zorionak Iraultza eta Maria Luisa
Martxuan 20xan 10 urte eta martxuan 22xan 71 urte, Udabarrizakin batera. Zorionak bixori! Bihotz-bihotzez maite zaitzuegu! Etxekuen partez!



Zorionak Eider eta Asier!
Martxuan 14an eta 24an, 33 eta 2 urte betetzen ditzuzelako!
Zorionak eta patxo pila bat aitaxo eta Ikerren partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Lehiaketa

Zein da?



Saria:
Iargia
Mihiluze mahai jokoak.

Aurreko aleko erantzuna

Yoana Azpirte, udaleko berdintasun teknikaria.

Irabazlea



Ion Oñederra

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea etara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Iturria: Maria Eozia Aizpuri / Katarine Iñurrieta

Kinto bazkaria Gilan

Argazki dotore hau 1954. urtean jasota dago. Mahaiaren agiran eserita agertzen diren hamar gizonezko dotore hauek 1.894. urtean jaiotako en kinto bazkaria ospatzen

dihardute Gila etxeko jantokian. Lagunartean, ondo janda eta bapo beteta ospatu zituzten 60 urteak.

Argazkian, ezkerretik eskumara:

Victorio Naparra †, Pedro Mari Iriondo †, Ramon Maiztegi †, Benantzio Iñurrieta †, Pepe Fernandez †, Basilio Aizpuri †, Rufo Oregi †, Lorenzo Juarez †, Leontzio Oregi †, (ezezaguna), Jesus Galarraga † eta Pedro Basauri †.



LUIS CASARES PRADO
1996ko MARTXOAK 24
17. URTEURRENA

"Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin."

Etxekoak

ALKARREKIN soraluze eginez



KIROLA

HEZKUNTZA

GAZTERIA

ONGIZATEA

KULTURA

HIRIGINTZA

PAREKIDETASUNA

JARDUERA EKONOMIKOA

EUSKARA

INGURUMENA



Debe gesa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Lanbide Garapena eta Turismo Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

EUROPAR BATASUNA
UNIÓN EUROPEA
SIK ERORAZTEKIN GIZARTETIKOAK
MUNIZIPALITATEA
DEUTSCHLAND
DEUTSCHLAND



Europa egiteko bide bat
Una manera de hacer Europa



Emen euskara elkarri



Atozkien, Kurria: Maialen Bela, Atziber, Mavoretia, Pili, Olean